

OLERKIAK

GAUAREN ARGILUNAK

Gaua ezarian-ezarian
sartu da;
egunari txanda
hartu bitartean,
biak gozo-gozo laztantzen dira
ortziak lur-erlaitzekin
topo egiten duen kantoian.
Egunero gurutzatzen
dira elkarrekin
betiko hegian,
iragan eta geroaren
amildegian.

Egunak, mendi-betazal
urrunean,
utzi du agurrean
bere begirada goriaren
maitezko lorratza.
Gauaren ederra!

Gero arranoak
bere hegal beltzak
hedatuz gure gain
itzaltasun arrea,
handitasun misteriotsua,
damaio, argiaren ordain.
Atsedon-gonbidapena...!

Ez du oraindik
mende hartu dena.

Gaurkoarenak egin du;
egunaren ahots lakarra
ez, horratik, isildu;
soka-dantzaren haria ez da
bere baitara bildu.
Egunaren iluneko eranskin,
kaleak bereari ekin,
gaur lurrun patsetan
bor-bor baitu irakin.

Leiho-zirrikitutik
dirdai dagien bitxira
inguma lodi hautseztatu bat
sartu da plaza itxira;
bere dantza zoroan
bira eta bira
talketako biribilketa hautsira.

Mur-mur
zer edo zer erranez belarrira;
nork jakin maite-irritsez
ala haserrez...
Badirudi kortejatzer
datorrela, inguru-minguru,
bitxi gori xarmantaren ertzera.

Eta gauak bere bekozkoz
legera deitu duenean,
men egin dut
haren esanera.

Kaleko astrapalak
urruneko hots apalak
izatera etorri dira,
haren kolko sakonean galdurik,
desorduak ahuldurik.

Ilunaren altzo bigunean
amildu nintzen
neure buruari nekea arintzen
loaren laztan lausoan.
Triki-traka denak ahaztuz,
ni bezala logale goiztiar auzoan.

Bihar ez-konortetik
itzuliko naiz konortera,
betiko lehenera,
eguneroko lanera.
Ez dut biharamuneko
lo errearen beldurrik,
oso ohitua bainago
eguneko zidorrera,
ordu-gurpilen lorrera.

Baina iratxo guztiak,
ilunpetako aziak,
gainean nituen.

Gauak bart, haur bat bezala,
bere beso bigun bezain beltzetan
bildu nauenean,
ez nituen itzali
konortearen begiak.
multzoka, nahasian

zekarzkidan irudiak,
 bultzaka zurrunbiloka
 gauaren barne-argiak.
 Eta... itzarrik nengoen,
 itzarrik eta zain,
 gauero lagun dudan
Maritxu bekainekoren zain.

Burkoarekin borrokan,
 amets gaizto irakinetan
 buruhausteren buruhaustez
 ezin ehozko kezka
 nuela, nahi gabe ere galdezka,
 sosegurik eman ezinik
 gogo-indarrei,
 ideia-bisuts artean jarrai,
 gogoeta zoroetan ernai,
 sukarrezko isuri irabiatu
 erogarrian itzarrik,
 itzarrik gauaren baitan,
 arbin, izerdi-larritan.
 Itzarrik eta bakarrik.

Bestetako lagun gozoa,
 sukarrez duzu altzoa.
 Nire barne-ekaitzaren
 entzule isila,
 mila aldiz estutu zaitut
 bake bila.
 Irrika larriz igurtzia
 baina azkenik, alferrikako itzulietan
 etsipenez gaitzetsia...

Gauaren luzea!
orduz hornitua,
luzezko luzapenez horditua!
Minutuak ordu bihurtu,
segundoak ere ezin agortu...
Denboraren ezin ehoa
betikotasun antzera
luzatzen den aroa.

Gaua, indar berrien pizgarri,
itxaropen iturri,
berritze-isuri
argia, dakarzu kolkoan,
zure itzalaren hitsa
itzalitakoan.

Gaua, misterio airezko
lilura ordua,
krazio garaiko
aitzin-akordua!

Txokoz beterik gaua,
txokoak maiteminduz,
maiteminduak irrikaz.
Baina bart parte txarreko
iratxoz hertsirik
garrasi egin nuen
erraien erditik:
gaua gauekoentzat!

Luis Baraiazarra